


Euskal AEko zerbitzuen sektorearen salmenta- indizea %3,4 gehitu zen 2014ko laugarren hiruhilekoan

Urte osoan salmentak %1,7 gehitu dira, hiru urtez tasa negatiboak izan ondoren

Eustatek emandako datuen arabera, 2014ko laugarren hiruhilekoan, Euskal AEko zerbitzuen sektorean salmenta-indizea %3,4 gehitu zen nominalki, aurreko ekitaldiko hiruhileko beraren aldean eta lan-egutegi homogeneoan.

Aurreko hiruhilekoaren aldean salmenta-indizea %1,0 nominala gehitu zen, urtaro-eraginak kenduta.

Euskal AEko zerbitzuen gainerako koiuntura-indizearen urte-arte aldakuntza-tasa. (%)
Jaiegunen eraginetatik zuzendua. Uneko prezioak



Merkataritzaren salmenta-indizea %2,3 nominala gehitu zen 2014ko laugarren hiruhilekoan; indizearen parte diren beste zerbitzuena %5,0, 2013ko aldi beraren aldean.

Merkataritzaren barruan deigarria da Motordun ibilgailuen salmenta eta konponketaren igoera nominala, %6,7. Txikizkako merkataritzan %1,3ko gehikuntza dugu eta Handizkakoan %2,4koa.

Beste zerbitzuetan gehikuntzak denetan, tamainaz ezberdin. Garraio eta biltegiatzean %7,9; Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoetan %5,4; Jarduera administratibo eta laguntza-zerbitzuetan %3,3; Ostalaritzan %2,2; Informazio eta komunikazioetan %2,2.

Salmenta-indizearen igoerarik handiena, Gipuzkoan %4,9; Araban %3,2; Bizkaian, %2,5.

Termino errealetan, prezioen eragina kenduta, zerbitzuen sektorearen salmentak %3,7 gehitu ziren laugarren hiruhilekoan.

2013ko hiruhileko beraren aldean eta prezio finkoetan, Merkataritzaren salmenta-indizea %3,0 gehitu da, eta beste zerbitzuetan %4,4.

Merkataritzan urte artekoa positiboa izan da sektore guztietan: Motordun ibilgailuen salmenta eta konponketa %7,2 gehitu zen. Handizkako merkataritzaren salmenta-indizea %3,1, Txikizkakoarena %2,0.

1. taula. Euskal AEko zerbitzuen koiantura-indizea. Urte arteko eta hiruhileko arteko aldakuntza-tasa (p). IV/2014

	UNEKO PREZIOAK		PREZIO FINKOAK	
	t / t-4	t / t-1	t / t-4	t / t-1
INDIZE OROKORRA lurralde historikoaren arabera				
Euskal AE	3,4	1,0	3,7	1,5
Araba	3,2	1,2	3,5	4,4
Bizkaia	2,5	0,2	2,7	0,9
Gipuzkoa	4,9	2,2	5,3	1,4
INDIZE OROKORRA sektorearen arabera				
Merkataritza	2,3	0,7	3,0	1,4
Ibilgailu motordunen salmenta eta konponketa	6,7	3,8	7,2	3,4
Handizkako merkataritza	2,4	1,1	3,1	1,5
Txikizkako merkataritza	1,3	1,2	2,0	0,6
Bestelako zerbitzuak	5,0	2,2	4,4	1,1
Garraioa eta biltegiatzea	7,9	0,3	6,8	1,4
Ostalaritza	2,2	0,1	1,7	-0,7
Informazioa eta komunikazioak	2,2	1,1	3,9	1,6
Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	5,4	5,5	4,8	5,0
Administrazio jarduerak eta zerbitzu lagungarriak	3,3	1,6	2,2	0,1
ENPLEGU INDIZEA				
Euskal AE	-0,7	-0,5		

t / t-4 Urte arteko aldakuntza. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

t / t-1 Hiruhileko arteko aldakuntza. Datu desestazionalizatuak

Iturria: Eustat. Euskal AEko zerbitzuen koiantura-indizea (ZGK)

Beste zerbitzuetan, igoerak euro finkoetan sektore guztietan. Garraio eta biltegiatzean %6,8; Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoetan %4,8; Jarduera administratibo eta laguntza-zerbitzuetan %2,2; Ostalaritzan %1,7; Informazio eta komunikazioetan %3,9.

Euskal AE osoan, hirugarren hiruhilekoaren aldean, zerbitzuen sektorean landunen kopurua %0,5 murriztu da 2014ko laugarren hiruhilekoan.

2014. URTEKO BALANTZEA

Urte osoan, zerbitzuen salmentek %1,7ko igoera nominal metatua izan dute, hiru urtez tasa negatiboak izan ondoren.

Urte osoan, tasa nominaletan, Gipuzkoan %3,4ko igoera, handiena; Bizkaian %1,0; Araban %0,4. Aurreko urtearen aldean, merkataritza %1,4 gehitu eta gainerako zerbitzuak %2,1.

Termino errealetan, Euskal AEn, sektorean %1,7ko igoera metatua. Gipuzkoan %3,4, Bizkaian %1,1, Araban %0,4. Merkataritza %1,9 gehitu; gainerako zerbitzuak %1,4.

Langile okupatuen kopuruan, 2014an, %-1,6 aurreko urteko batez bestekoaren aldean.

1. taula. Euskal AEko zerbitzuen koiuntura-indizea. Urte arteko aldakuntza-tasa

	UNEKO PREZIOAK			PREZIO FINKOAK		
	2014	2013	Δ%	2014	2013	Δ%
INDIZE OROKORRA lurralde historikoaren arabera						
Euskal AE	93,3	91,8	1,7	87,0	85,5	1,7
Araba	93,2	92,8	0,4	86,5	86,2	0,4
Bizkaia	90,6	89,7	1,0	85,0	84,1	1,1
Gipuzkoa	98,2	95,0	3,4	91,0	88,0	3,4
INDIZE OROKORRA sektorearen arabera						
Merkataritza	95,3	94,0	1,4	88,5	86,9	1,9
Bestelako zerbitzuak	90,3	88,5	2,1	84,8	83,6	1,4
ENPLEGU INDIZEA						
Euskal AE	88,1	89,6	-1,6			

Iturria: Eustat. Euskal AEko zerbitzuen koiuntura-indizea (ZGK)

Ohar metodologikoa: Zerbitzuen Koiunturako Indizea ondorengo azpi-sektoreek osatzen dute (JESN-2009):

Merkataritza Handizkako merkataritza (46 dibisioa); Txikizkako (47); Ibilgailu eta motozikleten salmenta eta konponketa (45).

Beste zerbitzuak: Garraio eta Biltegiatzea (H sekzioa); Ostalaritza (I); Informazioa eta Komunikazioak (J); Jarduera Profesional, Zientifiko eta Teknikoak (Mren zati); Jarduera Administrazio eta Laguntza-zerbitzuak (Nren zati).

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko Zerbitzuen koiuntura-indizea (ZKI). Prentsa-oharrak Interneten

Euskal AEko Zerbitzuen koiuntura-indizea (ZKI). Datu-bankua